

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Indarrik gabe uztea EAeko toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioaren (UDALHITZ) 95. eta 96. artikulua

Udal honek hau erabaki zuen 2023ko urtarrilaren 26an egindako ohiko osoko bilkuran:

1/ Ez aplikatzea, ondoriorik gabe utzita, EAeko toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioaren (UDALHITZ) 95. eta 96. artikulua, erretiro aurreratuaren sariei buruzkoak; izan ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera (Auzitegi Gorenaren martxoaren 16ko 344/2022 epaia –4444/2020 kasazio errekurtsua–, apirilaren 5eko 421/2022 epaia –850/2021 kasazio errekurtsua– eta 2022ko ekainaren 7ko 682/2022 epaia –2258/2021 kasazio errekurtsua–), pizgarri horiek ordainsari hutsak dira, eta ez datoz bat enplegatu publikoen ordainsariei buruzko Estatuko oinarrizko legeriarekin.

2/ Aguraingo Udalaren giza baliabideak arrazionalizatzeko planean erretiro aurreratuaren sariak arautzeko jasotako neurria indargabetzea; izan ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera (Auzitegi Gorenaren martxoaren 16ko 344/2022 epaia –4444/2020 kasazio errekurtsua–, apirilaren 5eko 421/2022 epaia –850/2021 kasazio errekurtsua– eta 2022ko ekainaren 7ko 682/2022 epaia –2258/2021 kasazio errekurtsua–), pizgarri horiek ordainsari hutsak dira, eta ez datoz bat enplegatu publikoen ordainsariei buruzko Estatuko oinarrizko legeriarekin.

Administrazio bidea agortzen duen erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, zuzenean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, eta horretarako, bi hilabete izango dira, jakinarazte egunaren biharamunetik hasita, edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke, erabakia hartu duen organoari berari zuzendua, eta horretarako, hilabete izango da, jakinarazte egunaren biharamunetik hasita; haren berriazko ebazpenaren kontra, berriz, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik hasita.

Agurain, 2023ko otsailaren 28a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES